


**GOSEARI**  
**AURRE EGIN**  
**POBREZIA**  
**GUTXITZEKO**



# *Aurkibidea*

<input checked="" type="checkbox"/> Aurkezpena	3
<input checked="" type="checkbox"/> Gaiarekin egunean jartzeko	5-8
<input checked="" type="checkbox"/> Boli Kosta - Bonduku proiektua	9-10
<input checked="" type="checkbox"/> 1. Jarduera: Ausartu Afrika ezagutzen	11-12
<input checked="" type="checkbox"/> 1. Jarduera (Fitxa)	12-13
<input checked="" type="checkbox"/> 2. Jarduera: Gose etengabea	14-15
<input checked="" type="checkbox"/> 2. Jarduera (Fitxa)	16-18
<input checked="" type="checkbox"/> 3. Jarduera: Hitzetatik ekintzetara	19-20
<input checked="" type="checkbox"/> 4. Jarduera: Emaiezue zuek jaten	21-22
<input checked="" type="checkbox"/> Otoitza egiteko	23-24
<input checked="" type="checkbox"/> Saski-naskia	25-27

# *Aurkezpena*

PROCLADE YANAPAY Garapenerako Promozio Klaretarrak gonbidatu nahi zaitu "GOSEARI aurre egin POBREZIA gutxitzeko" kanpainan Eragile gisa aritzeko.

Duela zenbait urte, Milurtearen Garapen Helburuak (ODM), sentsibilizazio, hausnarketa eta konpromisorako ardatz bilakatu zaizkigu. Urte honetan lehenengo helburuari begiratu nahi diogu: **Muturreko pobretasuna eta gosea desagerraraztea**. Kanpaina honen bidez, gogorarazi nahi dizugu goseak, isilean, milioika pertsona hiltzen dituen errealitatea dela. Arazo honen benetako erroak, ondorio larriak eta pertsona, talde eta gizarte mailako konpromiso aukerak ezagutu nahi ditugu, gizabanako gisa gutxien gaituen errealitate hau aldatzeko.

Aurreko edizioetan bezala, Hegoaldeko ahotsak presente egongo dira zuzeneko testigantza baten bidez. Pertsona hauek leku zehatz batetik mintzatuko zaizkigu: Bondukú (Boli Kosta). Bertan, emakume talde bat anakardoak ekoizteko kooperatiba bat sustatzen ari da. Emakume hauek pixka bat ezagutzen eta euren ekimenarekin bat egiten saiatuko gara.

Zure eskuetan dagoen Gida honek lan-proposamena izan nahi du, Kanpaina hau Batxilergoko 1-2 mailako neska-mutilen artean sustatzeko. Talde hauekin lan egiteko aukeratu dugun gaia **GOSEA, POLITIKA ETA EKONOMIA** da. Baliogarria izatea nahi dugu.

Kanpainaren nondik norakoak partekatzeko eta material osagarria eskaintzeko asmoz, blog bat ireki dugu:

<http://procladeyanapay.nireblog.com>

Bertara sartzen gonbidatzen zaitugu zure hausnarketak eta lanak helarazteko ([procladeyanapay@gmail.com](mailto:procladeyanapay@gmail.com)).

Eskerrik asko zure lan solidarioagatik eta misiolaritzagatik.

PROCLADE YANAPAY  
Heziketa eta Sentsibilizazio Arloa



# Gaiarekin egunean jartzeko



MILURTEAREN GARAPEN HELBURUAK		
<b>1. HELBURUA:</b>	Muturreko pobretasuna eta gosea desagerraraztea	
	<b>1. Helmuga</b>	<b>2. Helmuga</b>
	Dolar bat baino gutxiagoko diru-sarrera duten pertsonen kopurua erdira murriztea, 1990 eta 2015 bitartean.	Gosea pairatzen duten pertsonen kopurua erdira murriztea, 1990 eta 2015 bitartean.

XXI. mendean, gosea pairatzen duten pertsonak egotea ez da errealitate konponezina eta moralki ezin da onartu. Gosearen arazoa gehiago sufritzen duen kontinentea Afrika da oraindik ere. Sahara azpiko Afrikako populazioaren %33 elikatu gabe dago, eta garapen bidean dauden herrialdeetan elikatu gabeko pertsonen kopurua %17koa da. Portzentaje hau %55era igotzen da Erdialdeko Afrikan.

Pobretasunaren aurkako borroka ezin da irabazi gosea desagerrarazi gabe, hau baita pobretasunaren ondorioz latzena. Goseak gaixotasunak eta heriotza dakartza, pertsonen lan egiteko ahalmena kentzen die eta umeen heziketa-prozesua oztopatzen du. Osasun falta honek sorgin-gurpil batean kateatzen ditu pertsonak, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Gosea, gehien bat, giza-eskubideen urraketa da.

Zoritxarrez, pobretasuna gutxitzera zuzendutako estrategia gehienek ez dute zuzenean jotzen gosearen gaia. Politika hauen arduradunek uste izan dute diru-sarrerak handitzearen eta ekonomiaren hazkundearen onurak gosea pairatzen dutenengana ailegatuko zirela. Baina desnutrizioa pobretasunaren kausa eta ondorioa da, aldi berean.



## Gosean harrapaturik

Gosea duten pertsonak pobretasunean eta ezintasunean harrapaturik daude. Desnutrizio kronikoak sortzen dituen kalteak haurtzaroan hasten dira eta bizitza osoan mantentzen dira. Giza gorputzak, behar beste kaloria eta elikagai ez izatean, jarduera fisikoa gutxitzen du, eta umeen garapena gelditzen da ia. Haurdun dauden emakumeek, gosea pasatzen dutenean, pisu gutxiko umeak izaten dituzte, eta hauek, gero, hazkundearen atrofia batez eta etengabeko gaixotasunez egingo diote aurre bizitzari. Fisikoki eta mentalki ahula den belaunaldi batek gabezia ziklo hori transmitituko dio hurrengo belaunaldiari.



## Goseak emakumeen emantzipazioa eragozten du

Munduko pobreen artean gehienak emakumeak eta neskatok dira. Ikerketek erakutsi dute, emakumeek formazio eta ezagutza gehiago dutenean, familiaren diru-sarrerak eta nutrizioa handitzen direla eta haur-heriotza gutxitzen dela. Hezkuntzak familia txikiagoak ere sortzen ditu. Baina emakumeek eta neskatok gizonezkoek baino aukera gutxiago dute ikasteko eta gaitzeko. Eta kultura askotan, gizonezkoek lehenago eta gehiago jaten dute, nahiz eta garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeek lan-zamarik astunena jasaten duten. VIH/HIESak are zama handiagoa erantsi dio emakumeen zereginari. Gaixok zaindu eta artatzeko beharrak lurrak lantzeko eta elikagaiak prestatzeko duten denbora mugatzen du. Honek familiarentzako elikadura sinpleago eta ez horren nutritibo bat dakar.

## Elikagai gutxi, Ikaskuntza gutxi

Heziketa da pobretasunetik irteteko modurik fidagarrienetako bat, baina ume pobre asko ez dira inoiz eskolara joaten matrikula eta uniformeen kostua dela eta, edo familiarentzat lan egin behar dutelako. Sahara azpiko Afrikan, umeen ehuneko 50 edo 60k baino ez dute izena ematen lehen hezkuntzan. Gosea pairatzen duten eta eskolara doazen umeei zailago zaie kontzentratzea eta ikasgaiak bereganatzea. Hezkuntzaren onurez gabetzean, goseak indartzen du helduak direnean sufrituko duten pobrezia.

## Lan-esku ahula: aktibo pobretua

Askotan esan ohi da pobreen aktiborik garrantzitsuenaren euren lan-indarra dela. Baina goseak hori ere murrizten du. Gorputzak energia lan bilakatzeko duen ahalmena mugatzen du gose kronikoak, pertsonak ahuldu egiten ditu eta itxaropen edo motibaziorik gabe uzten ditu. Ez da harrigarria gaizki elikatutako pertsonak lana aurkitzeko eta produktibo izateko zailtasuna edukitzea. Enplegu-emakek pentsa dezakete gosetuta dauden pertsonak motelak edo alferrak direla, egiatan lozorrotuta daudenean (kaloria eta elikagai falta luzearen aurrean gorputzak duen erantzuna).



## Aldaketa klimatikoa

Aldaketa klimatikoak mehatxu berriak planteatzen ditu elikadura alorrean. Honek, gehien bat, euren nekazaritza lanetarako euri ura beharrezko duten sektore ahulenei eragingo die (nekazari txikiei eta artzain nomaden komunitateei). Ikerketek modu fidagarrian aurreikusten dute Afrikako 55 edo 65 milioi pertsona gehiago izan daitezkeela gosearen biktima 2080an, tenperatura globala ia 2,5°C areagotzeagatik. Iparraldeko gobernuek bikoiztu behar dituzte euren esfortzuak negutegi efektua sortzen duten gasen isurketak gutxitzeko, eta Afrika aldaketa klimatikora egokitzeko programak finantzatu beharko lituzkete. Halaber, Afrikako gobernuek ere lurzorua degradazioa gelditzeko neurriak areagotu behar dituzte, hauxe delako aldaketa klimatikoa errazten duten faktoretako bat.

## Gatazka armatuak

Deigarriena da gatazka armatuek Afrikan duten eragina. Hauek dira kontinenteak pairatzen dituen elikadura krisi gehienek sorburua. Elikadura-larrialdi luzea pairatu duten aberrietan, gudak edo barne borrokek funtsezko erantzukizuna izan dute. Afrikako gobernuek euren populazioa babesteko ardura duten arren, behin eta berriro ahazten dute behar hori, Ugandako iparraldean ikusi ahal izan den bezala, eta kasu batzuetan, biolentziaren konplizeak dira, Darfur-en gertatu den bezala. Afrikak pairatzen dituen elikadura-krisien erdian baino gehiagotan gatazka armatuek eta, horien ondorioz, milioika pertsona lekualdatu behar izateak duten garrantzia ikusita, behar beharrezkoa da bakea berehala ekartzeko neurriak hartzea.



## Behar larrietarako laguntza

Azken urteotan, Afrikari ematen zaion behar larrietarako laguntza areagotu da eta honek bizi ugari salbatzen lagundu du. Hala ere, laguntza txikiegia izaten da maiz, beranduegi ailegatzen da eta zabaltzeko orduan desoreka handiak daude. Askotan, giza laguntzarentzat aukeratzen den uneak eta kopuruak interes politikoekin eta komunikabideetan sortutako arretarekin zerikusi handiagoa daukate giza beharren balorazio objektibo batekin baino. Gainera, laguntza motak desegokia izaten jarraitzen du. Ez da positiboa Nazio Batuek zabaltzen duten laguntzaren %70 garatutako herrialdeetatik datozen produktuak izatea. Elikadura-laguntza ezin daiteke izan herrialde aberatsetako nekazariak laguntzeko instrumentua. Gosea pobretasunagatik elikagaiak ezin hartzearen ondorioa denean eta ez elikagaien urritasunagatik, dirutan emandako laguntza, bizimodua berreskuratzeko neurriekin batera, erantzun egokiagoa, arinagoa eta merkeagoa izan daiteke.

## Iruzurretik ateratzea: populazioa elikatzea pobretasuna murrizteko

Goseak horrenbeste eragin hondatzaile baldin baditu gizartean, zergatik gobernuek ez diote arazo honi lehentasuna ematen? Erantzun bat izan daiteke herrialdeak guztiz estututa daudela arazo multzo batekin, eta premiazkoenak konpontzen saiatzen direla. Goseteek arreta ekartzen dute, gose kronikoak, ordea, "ikusezin" izaten jarraitzen du. Honetaz gainera, munduak hainbeste emaitza on izan ditu elikagaiak sortzen ezen erabakiak hartu behar dituzten arduradun batzuek ezer ez dela egin behar uste izan baitute. Horregatik, elikadura-segurtasunaren alorrean helburu espezifiko batzuk ezarri beharrean, irizpide tradizionalak onartu eta hazkunde ekonomikoan zentratzen dira, horren ondorioz gosea murriztuko dela pentsatuz.

Baina pobretasuna gosearen kausa dela jakinda ere, gero eta argiago azaltzen ari da kontrakoa ere egia dela. Goseak pobretasuna sortu eta indartzen du. Pobretasuna modu eraginkorrean murrizteko, herrialde bateko populazioak, oroz gain, elikagai nahikoa izan behar du.

Populazioak gizartean parte hartzeko eta indartsu egoteko behar diren elikagaiak lortzen dituztenean, produktibitatea areagotzen da, merkatuak zabaltzen dira eta pobretasuna murrizten da. Nutrizio hobeto batek eragin zuzena dauka hazkunde ekonomikoan, lan-eskua hobetzen delako eta, zeharka, bizi-itzaropena luzeagoa delako eta osasuna hobetzen delako.

## Akats bat zuzentzea

Honek ez du esan nahi gosearen aurka borrokatzeko garrantzia ekonomikoa dela soilik. Arrazoi nagusia morala da: planetako biztanle guztiak nahikoa elikagai izateko funtsezko eskubidea daukate. Nazioarteko zuzenbideak horrela aitortzen du, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean ezartzen den legez. Honek estatuak behartzen ditu behar diren neurriak hartzen, beharrezko baliabideak erabiliz, elikagaiak izateko denok dugun eskubidea mailaka bete ahal izateko. Itun honek azpimarratzen du ingurumen bat sortzeko duen garrantzia, gizabanakoek kontsumitzeko elikagaiak salerosi edo ekoizteko. Baina posible ez denean, Estatuak ardura juridiko eta morala dauka haiei laguntzeko, nazioarteko laguntzarekin beharrezkoa balitz.



**Gure aiton-amonei goseak errukia eta karitatea eragin ahal zien,  
baina ez zien larritasunik sortzen, haientzat naturala eta sailhestezina zelako.**

**Guri, ordea, kendu daitekeen zerbait dela erakutsi digute,  
eta horregatik harritu, haserretu eta asaldatu egin behar dugu.**

*José Luis Sampedro, Ekonomia Egituran katedraduna*



## BOLI KOSTA



✓ Côte d'Ivoire edo Boli Kosta (Izen ofiziala: République de Côte d'Ivoire), Afrika mendebaldean kokatutako herrialdea da. Liberia, Ginea, Mali, Faso, Ghana eta Gineako Golkoarekin dauzka mugak.

✓ Frantziako kolonia ohia, 1960an lortu zuen independentzia. Hiriburu ofiziala Yamoussoukro da, nahiz eta Abidjan hiriburu ekonomikoa den eta diplomazia-ordetzkaritza guztiak bertan dauden.

✓ Azken urteotan (2002-2007) guda zibila pairatu du.

✓ 18.000.000 biztanle ditu. Bizi-itxaropena 49 urtekoa da. Emakume

bakoitzeko seme-alaben kopurua 4,43koa da. Populazioaren %50,9 alfabetatua dago Populazioaren % 9 VIH (HIES) birusarekin kutsatuta dagoela kalkulatzen da.

✓ Herrialdean 65 bat hizkuntza mintzatzen dira. Entzunenetako bat dioula da.

✓ Euren laborantzarik garrantzitsuenak kafea eta kakaoa dira.

✓ Independentzia garaitik Frantziarekin lotura hurbilak mantenduz, esportaziorako nekazaritzaren dibertsifikazioarekin eta atzerriko inbertsioaren pizgarriarekin, Afrikako herrialde tropikaletako aberatsenetakoa bilakatu da. Hala ere, azken urteotan lehia handiago batek eta merkatu globalean euren laborantzen prezioek jasan duten jaitsierak eragin handia izan dute herrialdean.

✓ Populazio gehiena kristaua eta animista da.




## Guda zibila Boli Kostan



Boli Kostako guda zibila 2002ko irailean hasi zen eta 2007an bukatu, talde biak batu zirenean, eta beti bezala, herrialdeko biztanleek jasan zituzten ondorioak.

Milaka pertsonak ihes egin zuten Boli Kostatik inguruko herrialdeetara gobernuaren eta matxinoen arteko liskarrak hasi zirenean. Geroago, haietako batzuk bueltatu ziren, baina 15.000 inguru Ginean eta Liberialan geratu ziren. Antza denez, Liberialan bakarrik 12.000 bat errefuxiatu dago, haietako asko herrialde horretako zenbait herritan integratuta. Beste batzuek, berriz, herrialdeko hiriburura (Monrovia) ailegatu dira.

Boli Kostako guda zibilak osasun-programak geldiarazi ditu matxinoen zonaldeetan, eta HIESaren aurkako tratamenduak ere bai, populazioaren %9 VIH probatan positibo ematen duen herrialde honetan.



- ✓ INADES FORMATION Afrikako GKE bat da, eta 10 herrialdeetan lan egiten du: Burkina Faso, Burundi, Kamerun, Kongo E.D., Boli Kosta, Kenya, Rwanda, Tanzania, Txad eta Togo.
- ✓ Haren helburua nekazaritzako populazioaren garapen sozial eta ekonomikoaren alde lan egitea da, gizarteko parte hartze libre eta arduratsua sustatuz.
- ✓ Ondoko egitasmoak garatzen ditu: nekazaritza eta abeltzaintza, elikadura-segurtasuna, formazioa, alfabetatzea, komunitateen antolakuntza eta garapena,...



## BONDUKU PROIEKTUA

*Anakardoak ekaritzeko kooperatiba*



Zanzan eskualdean (herrialdearen ipar-ekialdean, Sahel inguruan), beti izan da zonalde pobrea nekazaritzari dagokionez. Azken urteotan ikusi da bere baldintza klimatikoak onak direla **anakardoak landatzeko**. Produktu honek elikadura-balio handia dauka eta gero eta eskatuagoa da tokian eta esportatzeko.

Egitasmo honen asmoak hurrengoak dira:

1. COPABO (Bonduku Nekazaritza Produktoreak) kooperatibako emakumeak **teknikoki formatzea**, anakardoak zuritu eta egokitzeko teknika zailetan.
2. **Bizitza asoziatibo eta kooperatiboari buruzko formazioa** ematea herri hauetako emakumeen elkarrekin funtzionamendu ona bermatzeko.
3. Hiru autoklabe (anakardoak egosteko), eskuz zuritzeko makinak eta lehortzeko labeak **erostea**.

Egitasmo honen bidez **kalitatezko produktu finala** lortu nahi da, Europako **Bidezko Merkataritzako kanalen** bidez komertzializatu ahal izateko.

**HORNIKUNTZAREN balioa: 21.000 euro**

## 1. Jarduera: **Ausartu AFRIKA ezagutzen**



### HELBURUAK

1. Afrika kontinentearen errealitateara hurbiltzea bere ondasunak eta dituen arazo larriak ezagutzeko.
2. Kontinente erraldoi honi buruz ditugun ezagupen eza eta aurreiritziak ezagutzea.
3. Afrikako kontinenteko pertsonenganako hurbiltasun afektiboa sustatzea.
4. Afrikan pairatzen den gose-arazora hurbiltzea.

### EDUKIAK

1. Afrika munduko hirugarren kontinenterik handiena da (munduko zabaleraren %22), baina munduko populazioaren %16 inguru biltzen du. 53 herrialdek osatzen dute. Hauek guztiak Afrikako Batasunaren kideak dira, Maroko izan ezik.
2. Kolonia ohiak izanda, Afrikako herrialde gehienek Europako Batasunarekiko lotura ekonomiko estuak mantentzen dituzte.
3. Sahara azpiko Afrikako biztanle gehienak gazteak dira. Zonalde honetako ezaugarriak handiena aldizkako elikadura-krisien iraunkortasuna da.
4. Kontinenteko biztanle gehienek Afrikako erlijio tradizionalak daukate. Bai kristautasuna bai islama modu sinkretikoan bizi da (nahastuta).
5. Afrikari buruz esan daiteke kontinente aberats pobretua dela. Baliabide naturaletan aberatsa izan da (kotoia, kafea, kakaoa), baliabide mineraletan (urrea, diamanteak), antzinako ohituretan, sendatzeko ezagupenetan,...
6. Hala ere... Komertzio librerako itunek nekazaritza produktuen prezioa jaitea ekarri dute eta honek nekazari txikiak desagerrarazi ditu (azukrea, esnea, arrosa); landatzeko lurak galtzen ari dira nazioarteko konpainiek agroerregaiak landatzeko desjabetuak; mailakako basamortu bihurtze efektua gertatzen ari da aldaketa klimatikoagatik eta monolaborantzagatik; privatizazio basatiak lortzeko zaila den ondasuna bilakatu du ura; farmazia industria multinazionalak Afrikako gaixoak erabiltzen dituzte etikaren kontrako tratamendu medikoekin esperimentatzeko; baliabide mineralen harrapaketak (koltana, urrea, diamanteak), pobretzeaz gainera, Kongoko 4 milioi pertsona hil ditu; aspaldiko sendabideei buruzko ezagutza eta Afrikako jatorrizko produktuak desjabetuak izan dira eta atzerriko patenteekin fabrikatzen dira.
7. Hurbil egonda ere, informazio garai bizi bagara ere,... Afrika kontinentea ezezaguna da oraindik orain guretzat. Bere pobrezia baino ez ditugu ezagutzen. Baina Afrika hori baino gehiago da.
8. Pentsa dezakegu Afrikatik Iparraldeko Herrialdeetara goseak dagoen jendea baino ez zaigula iristen, gerran dauden bere herrietatik ihesi, eta urteetan gure lanaz eraiki dugun ongizateaz aprobetxatzen. Alabaina, inork ez du hitz egiten bestelako "cayuco"-etaz, gure itsasotan zehar dabilzan itsasontzi horietaz gure lurretara denetik ekartzeko, besteak beste, gure altzarietarako egurra, gure mugikorretarako Koltana, gure instalazio elektrikoetarako kobrea eta gure autoetarako kautxua.

## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Taldea gonbidatuko dugu afrikar kontinentera hurbiltzeko ariketa bat egitera. Kide bakoitzari hiru post-it emango dizkiogu (zinta itsaskorra duten hiru paper zati izan daitezke) Afrikari buruz egungo informazioen bat idatz dezan bakoitzean. Berriren bat, daturen bat... izan daiteke. Behin idatziz gero, arbela bi zatitan banatuko dugu, alde batean POSITIBOA jarriko dugu, eta bestean, aldiz, NEGATIBOA. Kide bakoitzak dagokion zutabeen jarriko ditu idatzitako informazio horiek. Denak idatzi ondoren irakurri egingo ditugu taldeak jaso duena ezagutzeko eta sailkapenarekin ados gauden komentatzeko. Informazioak errepikatzen badira batu egingo ditugu. Egindako lanari buruz jardungo dugu:

- ✓ Zer informazio mota nabarmentzen da? (gizarte, kultura, politika, ekonomia edo osasun arlokoak...)
- ✓ Nolakoak dira informazio gehienak: positiboak ala negatiboak? Zergatik ematen da hori? Afrikako benetako errealitatea ote da?

Denen artean Afrikari buruzko informazioa "orekatzen" saiatuko gara. Informazio negatiboak nabarmendu badira (segur aski horixe gertatuko da) informazio positiboak bilatzen saiatuko gara; informazio positiboak nabarmendu badira, aldiz, negatiboak bilatzen saiatuko gara. Internet balia dezakegu horretarako.

2. Gosea da aspaldian kontinente afrikarrak arrastaka daraman arazoetako bat. Ideia jasa egingo dugu Afrikako gosearen kausei buruz eta arbelean idatziko ditugu. Zerrenda egin ondoren, kausak bi taldetan sailkatuko ditugu: batetik, kontinente afrikarretik zuzenenean eratoritzen direnak (beren gobernuak, bere idiosinkrasia, bere ekintzak...); eta bestetik, kanpoko eragileen menpe daudenak (nazioarteko politika, multinazionalen interes ekonomikoak...).
3. Eztabaida. Aurreko puntuan jasotako informazioa kontuan izanik, eztabaida antolatuko dugu Afrikako gosearen egoeraren erantzule nagusia zein den asmatzen saiatzeko. Horretarako:

- ✓ Moderatzaile lanak egingo dituen pertsona bat izendatuko dugu: hitza emango du, parte hartzeetan ordena mantenduko du...
- ✓ Bost laguneko talde bat izendatuko dugu herri-epaimahaiaren papera betetzeko: eztabaidan zehar interbentzioak jasoko dituzte eta azkenean epaia emango dute.
- ✓ Gainerako lagunak bi taldetan banatuko ditugu. Talde batek defendituko du gosearen arazoa Afrikaren ardura dela soilik, eta afrikarrek beraien konpondu beharko dutela. Besteak, aldiz, kanpoko eragileen kontua dela nagusiki, eta gainerako kontinenteek egin behar diotela aurre arazoari.
- ✓ Taldeko animatzaileak moderatzaileak lagunduko du, taldeek emandako argudioen aurrean nabardurak egin ditzake, eta beharrezkoa bada, eztabaida gidatuko du.

Taldeko animatzaileak eztabaidaren arauak gogoraraziko ditu: hitza eskatu behar da hitz egiteko, lagun guztien interbentzioak errespetatuko ditugu, bana-banan hitz egingo dugu...

Eztabaidaren amaieran (animatzaileak erabakiko du zein den une egokia) epaimahaia osatu dutenek epaia emango dute.

Amaitzeko zera parteka dezakegu: nola sentitu garen talde bakoitzean, erraztasunak/zailtasunak gure postura defendatzeko, argudioak bilatzeko, herri-epaimahaiak epaia emateko erabilitako irizpideak.

4. Ondorioak.

## 2. Jarduera: **GOSE** etengabea



### HELBURUAK

1. Afrikan gosearen arazoa iraunarazten duten kausa politiko, ekonomiko eta sozialetan sakontzea.
2. Afrikako gosearen eta Iparraldeko Herrialdeen bizimoduaren arteko harremanak aztertzea.
3. Denentzako mundu bidezkoagoa eraikitzen lagunduko duten banakako eta taldekako jarrerak sustatzea.

### EDUKIAK

1. Afrikak jasaten duen arazo larrietakoa gosea da. Kausa anitzek eragiten dute: ur falta, nekazaritza politika desagokiak, gerrak, nazioarteko merkataritza zuzentzen duten lege bidegabeak (patenteak esate baterako), klima aldaketa, Iparraldeko herrialdeen bizi-maila...
2. Aspalditik gero eta nabarmenago geratzen ari da Iparraldeko Herrialdeen bizi-maila (munduko biztanleriaren gutxiengoa) ezin dela orokortu munduko gainerako herrialdeetara (munduko biztanleriaren gehiengoa). Gure bizi-mailak (hobeto esanda, gure kontsumo-mailak) gizateriaren zati handienaren bizitza jaten du. Hegoaldea goseak hiltzen ari da, bitartean, Iparraldean oparotasunean bizi gara.
3. Gure kontsumo-mailak dituen mugen jakitun izan arren, Iparraldek neurririk eta beharrik gabeko xahuketa sustatzen jarraitzen du: ordenagailu, mugikor eta autoen etengabeko aldaketa... Gauzak aldatzen ditugu, ez gaizki daudelako edo ez digutelako balio, baizik eta beste berriago batzuk merkaturatu direlako. Hau da, zakarrera botatzen ditugu (kasurik onenean birziklatzera) erabiltzeko moduan dauden gauzak.
4. Iparraldeko Herrialdeek arazoak konpontzen dituzte (petrolioaren eskasia, klima aldaketa...) Hegoaldeko Herrialdeei oso negatiboki eragiten dieten erabakiak hartuz (ad.: bioerregaiak, buru argien ihesak, EPAk —Elkarlanerako Akordio Ekonomikoak Elkarlanerako—...). Antzineko koloniak desagertu diren arren, politika ekonomiko berriekin Hegoaldeko Herrialdeak esplotatzen jarraitzen da, kontinente afrikarrekoak bereziki. Hortaz, ia ezinezkoa da herrialde hauek burua altxatu ahal izatea eta dituzten arazo larriak gainditzea (ad.: gosea).
5. Gure kontsumoa gutxitzea (ad.: teknologia berriak) Hegoaldeko Herrialdeetako pobrezia eta gosea geldiarazteko gure eskura dagoen neurri bat da.

## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Gonbidatzen zaituztegu nor bere aldetik irakurtzera Lan Koadernoan ageri diren **Gosearen atzetik ezkututzen dena** testuak. Irakurketa gehiegi ez luzatzearren, testuak bana daitezke eta kide bakoitzak bizpahiru irakurri. Ondoren, taldean hitz egingo dugu:
  - ✓ Zer informazio berrik harritu gaituzte?
  - ✓ Zer informazio iruditu zaizkigu kezkarriagoak? Zergatik?
2. Banaka osatu Lan Koadernoan azaltzen den **Iparrarentzat onura dena Hegoari kalte** taula. Ariketa honen helburua da Iparraldeko Herrialdeek lortzen dituzten onurak aztertzea aurreko testuan azaltzen den atal bakoitzean, eta era berean, Hegoaldeko Herrialdeentzat (Afrikarentzat hain zuzen) dituzten ondorio negatiboak (kalteak). Komunean jarri behar da egindako lana.
3. Hiruzpalau laguneko taldetan saiatu alternatibak proposatzen bai Iparrak eta bai Hegoak onurak izan ditzaten. Komunean jarri planteatutako proposamenak. Eztabaida:
  - ✓ Erraza egin zaigu denentzat onura "berdintsuak" dakartzaten alternatibak bilatzea? Zergatik?
  - ✓ Jasangarria da (munduko pertsona guztientzat) Iparraldeko bizimodu eredu ("bizi-kalitatea")? Zergatik?
  - ✓ Zein da Afrikako gosearen eta gure "bizi-kalitatearen" arteko harremana?
  - ✓ Zer gauzatan moteldu beharko genuke gure kontsumoa Afrikan pittin bat hobeto bizi daitezen? Prest gaude? Zer eskatuko liguke? Zer nolako konpromiso zehatza har genezake banaka, eta gela mailan?
4. Ondorioak. Gogoetak jendaurrean jar daitezke hainbat eratan:
  - ✓ Ikastetxeko iragarki-tauletarako horma-irudiak eginez.
  - ✓ <http://procladeyanapay.nireblog.com> blogera bidaliz.
  - ✓ Ikastetxeko aldizkarira eta webgunera bidaliz.

## JARDUERA OSAGARRIAK

- ✓ EPA, Elkarlanerako Akordio Ekonomikoen gaian sakonduz ([http://www.oxfam.org/files/bp110\\_socios\\_rivales.pdf](http://www.oxfam.org/files/bp110_socios_rivales.pdf)).
- ✓ **Diamantes de sangre** filmarekin zine-foruma.
- ✓ **La isla de las flores** film laburrekin bideo-foruma.
- ✓ Vázquez Figueroaren **El coltán** liburua irakurri.

## 2. Jarduera: **GOSE** etangabea



# GOSEAREN ATZETIK ESKUTATZEN DENA



### Espekulazioa

Hipoteken krisitik ihesi, espekulatuzaile handiek baliabide ekonomikoak desbideratzen dituzte merkatu berrietarantz: petrolio, soja, garia, artoa, artoa... Ekoizpena handitu egiten da, baina ez pobreak elikatzeko, baizik eta bioerregaiak ekoiztuz negozioak egiteko, herri aberastuen autoak etorkizunean elikatzeko.

Aztertzaileek elikagaien prezioaren igoera bioerregai, klima aldaketari (produktibitatea jaitsi egiten da), eta Txina eta Indiatik elikagaien eskaera handiari (haragia batez ere) leporatzen diete; oso gutxi aipatzen dute elikagaien prezioarekin egiten ari den espekulazioa.

200 kg arto behar dira 50 litro bioerregai lortzeko, hau da auto baten depositua betetzeko. Baina arto kopuru berak haur bat elika dezake urte betez. Bioerregaiak ekoiztu beharko lirakeke landare eta nekazaritza hondakinekin, elikatzeko balio ez dutenekin, eta ez gizakien kontsumorako lantzen diren landareekin. Nire ustez, 26 milioi hektarea erabiltzea bioerregaiak egiteko hondamendia da. Gizateriaren aurkako krimen bat da.



### Diru-laguntza europarrak

Munduan gosea handitzen ari da eta Europak "fabrikatutakoa" da bereziki, bere nekazaritzari ematen dizkion diru-laguntza erraldoiei esker. Harrigarria da Senegaleko azoketan Espainian ekoiztutako azenarioak aurkitzea baita hiru aldiz merkeago ere bertakoak baino! Afrikak ez du inolako aukerarik aurrera egiteko nekazaritza duning honek irauten duen bitartean. Horrek guztiak eragiten du

baztertuek Europako hegoaldeko mugetara iritsi nahi izana.

Gaur egun laboreen %70 animaliak gizentzeko erabiltzen da. Gosea gizateriaren %85ari eragiten dion genozidioa da, bitartean, gainerako %15ak kontsumo maila moral-gabeaz gozatzen dugu. Gaur egun behi europar batek egunero 7 dolarreko diru-laguntza jasotzen du batez beste. Horren ondoan, 1.000 milioi pertsonak biziraun behar dute dolar batekin eguneko. Izugarria da munduan goseak dauden haurren %80 bizitzea elikagaien gaitardetan dauden herrialdeetan, gehienak pentsu eran, herrialde aberatsenak soilik kontsumituko dituzten animaliak elikatzeko.

## Petrolio

Petrolioaren etorkizuna Sahara azpiko Afrikan dago. Egun, petrolioaren munduko erreserben %10 hantxe daude, eta NBERen sutez, 2010. urtea baino lehen kontinente beltza izan daiteke munduko petrolioaren lehen ekoizlea. Txina, energiaz egarri, eta ikatza kenduta baliabide handirik gabekoa, kontinente osoan ari da garroak hedatzen. Inbertsioetan eta ofentsiba diplomatikoetan hamarkada luze bat eman ondoren, Afrikak erraldoi asiarraren energia beharren %30 hornitzen du.



Inoiz ez da horren garbi egon egia gordina gure munduko elikadura sistema honetan, nork irabazten duen eta nork galdu. Azter dezagun elikagaien ekoizpenaren elementurik oinarritzkoena: lurra. Esan genezake elikadura sistema industrialak ongari kimikoen droga-mendetasuna jasaten duela. Gero eta gehiago behar du bizirik irauteko, lurak higitzen ditu eta elikagaiak kultibatzeko ahalmena hondatzen ari da. Gaur egun, elikagaien izakin doituen testuinguruan, ongarien munduko merkatua kontrolatzen duten enpresa taldetxoak nahi duena kobratu dezake, eta horixe da egiten ari dena hain zuzen ere.



## Ongariak

## Buru argien ihesa

Iaz, Migrazio Globalen Nazioarteko Batzordeak bi adibide oso adierazgarri jarri zituen: Manchester hiri ingelesean Malawiko sendagile gehiagok lan egiten dute Malawi osoan baino. Eta Zambian, bere independentziaren egunetik 600 sendagilek amaitu zituzten ikasketak, eta horietatik erdiak emigratu egin dute.



Herralde aberatsek buru argien ihesa hobesten duen migrazio-politikak dituzte. Immigrazioaren beste aurpegia da, pateratan etortzen ez diren horiena, eta "ordena eta kontrola" ezarri behar dela esaten duten politikoentzat inolako "mehatxu" edo "arriku"rik suposatzen ez dutenena.

Funtsean, gizakia merkantzia ballitza hartzen dela ondorioztatzen da. Etorkina pobrea denean eta prestakuntza eskasa duenean esplotatu egiten da europarrek egin nahi ez dituzten lanetan. Eta lan kalifikazioa duenean erakartzen salatzen dira bere jatorrizko herrialdean eragiten den kaltea kontuan hartu gabe.







Europar Batasuneko gailurrak onartu zuen 2020. urtean energiaren gutzizko kontsumoaren %10 bioerregaietatik lortzea. Era horretan, planetaren kutsatzaile handienek Hegoaldeko herrialdeen aurka beste eraso bati eman diote hasiera ingurumenaren izenean.

**Bioerregaiak**

Nazioarteko Diru Funtzak baieztatu du arto eta sojako munduko uzten %20-50 bitartean desbideratzen ari dela bioerregaiak sortzeko. Izan ere, munduko biztanleriaren zati handi bat elikatzeko erabiltzen diren lur eta produktu berberak baliatzen ari dira bioerregaiak ekoizteko.

Garai bat amaitzen ari da, Iraultza frantsesetik eta Argien mendetik sortu ziren estatu nazionalena. Hasten dena kapitalismo basatiagoaren oihanarena da. Sortzen ari



garen munduan oligarka gutxi batzuek boterea erabiltzen dute inolako kontrol sozialik gabe.

Haiek dute boterea inoiz ez du izan inongo aita santuk edo enperadorek historia osoan zehar. Bi milioi pertsona bizi dira egunean dolar bat baino gutxiagorekin eta 100.000 lagun goseak edo bere ondorioz hiltzen dira egunero. Gosea gizakiaren sorkuntza da eta ez zorigaitzaren ondorioa. Egun, 500 enpresa multinazional handienek Munduko Produktu Gordinaren (MPG) %52a kontrolatzen dute.

**Multinazionalak**

Orain dela sei urte Europar Batasunak (EB) eta Afrika, Karibe eta Pazifikoko (ACP) 76 herrialdek merkataritza negoziatioak hasi zituzten. Prozesuaren data-mugara iristean, 2007ko abenduaren 31n, ACPko herrialdeen erdiak baino gutxiagok lotu zuten Europarekin akordioaren bat.



Elkarrizketa hauen hasierako helburua ona zen:

Elkarlanerako Akordio Ekonomikoak (EPA, ingelesezko siglak) lortzea, munduko ekonomian arian-arian ACPko herrialdeen integrazioa lortzeko, garapen jasangarria bideratzeko eta pobrezia gutxitzen laguntzeko.

**EPAK**

Hala ere, egungo akordioek ACPko herrialdeei garatzeko behar dituzten tresnak hain zuzen ere kentzen dizkiete, "garapenaren eskaileratik" at utziz, hain zuzen ere, mundu osoko —horien artean europar askok—, "eskailera" hori erabili dutenean beren ekonomia propioak sortzeko. Akordio horiek derrigortu egiten dituzte ACPko nekazariak eta enpresariak lehiatzera ekoizle europarrek lehiatzen diren arau berberen pean, modu serioan heldu gabe ACPkoek lehiakortasunaren aurrean gainditu behar dituzten mugei. ACPko gobernuak eskuak lotzen dizkiete merkataritza neurri anitzak erabiltzeko aukera debekatuz, baita beharrezkoak diren inbertsioak egitea eragotziz. Izan ere, horien bitartez merkatuen irekierak bidea emango luke lanpostuak eta bizimodu duinak sortzeko. Eta eskubide berriak ematen dizkiete inbestitzaile europarrei tokiko enpresen eta interes publikoaren kontura.

# IPARRarentzat onura dena HEGOari ...kalte



	IPARRarentzat onura	HEGOari kalte
Espekulazioa		
Diru-laguntza europarrak		
Petrolioa		
Ongarriak		
Buru argien ihesa		
Bioerregaiak		
Multinazionalak		
EPAk		

## 3. Jarduera: Hitzetatik ekintzetara



### HELBURUAK

1. Boli Kostako errealitatera hurbildu, hain zuzen, anakardoa ekoizteko emakumeen Bonduku kooperatibaren egitasmora.
2. Bonduku egitasmoarekin solidarizatu, taldeko inizatibak eta inizatiba pertsonalak sustatuz eta gure ingurukoei ezagutaraziz (familla, lagunak, herria/hiria).

### EDUKIAK

1. Boli Kosta, Frantziako kolonia ohia, Mendebaldeko Afrikan dagoen herrialdea da eta azken urteotan guda zibila jasan du. 18 bat milioiko populazioa dauka. Bere Giza Garapen Indizea (GGI) 0.432koa da (177 herrialdetan 166. lekuan). Populazioaren %7 VIHk kutsatuta dago. Populazioaren %36,8 nazioko pobreziaen marrantik baino beherago dago.
2. Guda zibilak 600.000 pertsona baino gehiagoren lekualdatzea ekarri zuen.
3. Azken urteotan, esportazioko produktu garrantzitsuenen (kakaoa eta kafea) prezioa jaitsi da. Jaitsiera honekin batera, oinarrizko elikagaien eta erregaien igoera gertatzen ari da. Horrek populazioaren gosea areagotu du.
4. Herrialdearen iparraldean, Zanzan eskualdean, Bonduku anakardoaren produktoreen kooperatibak egitasmora bat jarri nahi du abian euren produkzioaren kalitatea hobetzeko eta bidezko merkatuaren eskutik euren esportazioak areagotzeko.
5. Eskualde hau, Sahel ondoan, oso pobrea izan da betidanik nekazaritza alorrean. Azken urteotan, ikusi da baldintza klimatikoak onak direla anakardoa landatzeko. Produktu hau B bitaminan eta mineraletan (potasio, kaltzio, burdina eta fosforoa) aberatsa da eta gero eta gehiago eskatzen da tokian bertan eta kanpoko merkatuan.
6. Egitasmoaren helburua emakume hauei formazioa ematea da fruitu honen erabilera hobetzeko. Aldi berean, kooperatiba hornitu ere egin nahi du (makineria) kalitatezko produktua lortzeko eta erraztasunez saldu ahal izateko European bidezko merkataritzaren sareen bidez.
7. Kanpaina honen bidez, kooperatiba hornitzen lagundu nahi dugu. Horren kostua 21.000 eurokoa da.

## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Afrikako mapan Boli Kosta kokatuko dugu. Honi buruzko datuak internet bidez bilatzera gonbidatuko dugu: historia, populazioa, baliabide naturalak, egoera politikoa, erlijioetasuna, kultura... Lortutako datuak batera jarriko ditugu.
2. Bonduku Egitasmoa ezagutzen duen pertsona baten festigantza entzungo dugu. Pertsona horrekin hitz egingo dugu herrialdearen errealitateari buruz, egitasmolari buruz...
3. Taldeka hitz egingo dugu ondokoari buruz: zer konpromiso har dezakegu pertsonalki eta taldeka emakume kooperatiba honi laguntzeko? Zein ekintza jar ditzakegu abian egitasmoa ezagutarazteko eta beste pertsona batzuk inplikatzeko?
4. Proposatutako ekintzak jarraitu ahal izateko, jarraipen-komisio txiki bat hauta dezakegu (2-3 pertsona). Hauek hartutako konpromisoak oroitu, animatu eta bultzatzeaz arduratuko dira.



## 4. Jarduera: Emaiezue zuek jaten



### HELBURUAK

1. Hausnartutakoa eta Kanpainan bizitakoa, bai pertsonalki bai taldeka, fedez ospatu.
2. Gure bizitza Hitzaren bidez argitu, herrialde pobreenekiko konpromisoa eta solidaritatea eguneroko konstantea izan daitezen.
3. Afrikan gosea sufritzen duten pertsonen errealitatea otoitzera eraman.

### EDUKIAK

1. Jesus jendearengandik gertu zegoen. Batzuetan nahita egiten zuen topo jendearekin eta beste batzuetan jendeak topatzen zuen bera, bilatua zen. Bere pertsona, bere bizitza, bere ekintzak... erakargarriak ziren.
2. Jesus pertsonen minarekin minberatzen zen. Ez zen soilik idelak eta planak zituen pertsona bat, sentimenduak ere bazituen, eta hauek mugiarazi egiten zuten, jendearen arazoei irtenbide eraginkorrak bilatzeko. Otoitzean, Jainkoarekiko harremanean (bere Aita, bere Abba), elikatzen zuen bere barnetasuna.
3. Jesusen dizipuluak, Maisuarekin bizi baziren ere, ezin zuten erabat ulertu erakutsi nahi zien guztia, ez zeukaten haren indarra (haren espiritua). Horregatik, arazoen aurrean, saihesteko tentaldia izaten zuten (bakoitza ahal bezala konpondu dadila). Jesusek zuzentzen ditu eta aurkezten zaien egoeraz kargutzeko gonbitea luzatzen die.
4. Jesusi jarraituz, bere mezua aintzakotzat hartuz, solidaritatearen miraria posiblea da. Horren froga argiak ditugun arren, mesfidatiak gara oraindik lehenengo pausua emateko; nahiago izaten dugu beste batzuek ekin diezaiotela lehenbizi. Jesusek, berriro ere, gonbitea ematen du berarengan konfiantza izateko eta munduaren eskura gure dohain guztiak jartzeko (intelektualak, materialak, espiritualak...).

## OSPATZEKO PROPOSAMENA

1. Girotzea. Kaperaren erdian plater handi bat jarriko dugu Afrikako pertsonen argazkiekin. Plateraren inguruan kartelak jarriko ditugu hitz hauekin: POLITIKA - EKONOMIA - BOTEREA – IPARRA/HEGOA HARREMANAK. Irudi honek kanpaina honetan egindako gogoeta jaso nahi du: Iparraldeko erabaki handiek Afrikako pertsonak baldintzatzen dituzte. Irudia osa dezakegu taldearen laguntzarekin, egoera larriagotzen duten banakako jarrerak aipatzeko eskatuz.
2. Motibazioa. Kanpainan zehar Afrikako errealitatera hurbildu gara. Saiatu gara ikusten kontinente horretan bizia, aberastasunak, hazteko aukerak... daudela, eta baita muga asko ere. Gosearen ezkutuko kausetan sakondu dugu. Ospakizun honetan errealitate hau Jesusen begiekin begiratu nahi dugu, antzemateko nola begiratzen zuen, zer sentitzen zuen, zer egiten zuen... Bere presentzia gure artean adierazteko Jaungoikoaren Hitzaz jarriko dugu kaperaren erdian.
2. Hasierako abestia.
3. Jainkoaren Hitzaz: **Mateo 14, 13-21** (*Emaiezue zuek jaten*)
4. Hitzaren oihartzuna. Konpartitu ahal dugu.
  - ✓ *Jendea Jesus ikustera hurbiltzen zen.* Zer ematen zien? Zer ematen digu guri gaur? Zer ematen die Afrikako herriei?
  - ✓ *Haiekin urrikaldu zen.* Jesus ez da sorgor geratzen gizakion sufrimenduari, erreakzionatzen du. Zer sentimendu eragin ditu guran kanpaina honetan gosearen arazoa oroitzeak? Bat egiten al dute gure sentimenduek Jesusenekin?
  - ✓ *Emaiezue zuek jaten.* Dizipuluek jendea bidali nahi dute (problema ahaztu), baina Jesusek gonbidatzen ditu pertsona horietaz arduratzeko. Zer esaten digu Jesusek gosearen arazoaren aurrean, zer jarrera eskatzen digu?
  - ✓ *Jan zuten eta denak asebeten ziren.* Miraria guztiok konpartituz, posiblea da. Jesusengan fedea dugu, sinesten dugu bere urratsei jarraituta mundua aldatuko dela, gu aldatuko gara?
6. Otoitz espontaneoak Hitzaren argitan.
7. Gure Aita.
8. Konpartitutako azken otoitza: **Maitatzen ikasteko otoitza.**
9. Amaierako abestia.
10. Azken bedelkazloa.

# Otoitza egiteko



## Maitatzen ikasteko otoitza

Jauna, gose naizenean, emadazu janaria behar duen norbait;  
Egarri naizenean, emadazu ura behar duen norbait;  
Hotz naizenean, emadazu beroa behar duen norbait;  
Sufritzen dudanean, emadazu kontsolamendua behar duen norbait;  
Nire gurutzea astuna iruditzen zaidanean, utzidazu besteren gurutzea konpartitzen;  
Pobretasunean banago, jarri nire ondoan behartsu bat;  
Astirik ez dudanean, emadazu nire minutuak behar dituen norbait;  
Umiliatua banaiz, emadazu aukera norbait goraiatzeko;  
Animorik gabe banago, emadazu norbait animo berriak emateko;  
Besteek ni ulertzea nahi dudanean, emadazu nire ulermena behar duen norbait;  
Zain nazaten beharrezko zaidanean, emadazu norbait nik zaintzeko;  
Nigan pentsatzen dudanean, zuzendu nire arreta beste pertsona batengana;  
Zure laguntzarekin izan gaitezen duinak, Jauna, gure anai-arrebak zerbitzatzeko;  
Emaiezu, gure eskuen bitartez, ez soilik eguneroko ogia,  
baizik eta gure maitasun errukiorra, zurearen irudia dena.



**Madre Teresa de Calcuta**

## Hala ere



Pertsonak irrazionalak dira, ilogikoak eta bere baitara bilduak,  
HALA ERE, MAITA ITZAZU  
Ongia egiten baduzu, motibazio egoistak dituzula leporatuko dizute,  
HALA ERE, EGIN EZAZU ONGIA  
Arrakasta baduzu, lagun faltsu eta egiazko etsaiak irabaziko dituzu,  
HALA ERE, IZAN EZAZU ARRAKASTA  
Egiten duzun ongia bihar ahaztuko da,  
HALA ERE, EGIN EZAZU ONGIA  
Zintzotasunak eta zabaltasunak ahul egiten zaituzte  
HALA ERE, IZAN ZAITEZ ZINTZO ETA ZABALA  
Urte luzeetan eraiki zena gau batean suntsitu daiteke,  
HALA ERE, ERAIKI EZAZU  
Egiazko jendeak laguntza behar du baina eraso zaitzakete egiten baduzu,  
HALA ERE, LAGUN IEZAIEZU  
Emaiozu munduari daukazu onena eta hortzak ostikatuko dizkizute,  
EMAIOZU MUNDUARI DUZUN ONENA... HALA ERE.

## Solidaritatearen Otoitza

Zoriontsuak izan bitez Jesusi jarraitzen diotenak samariar onaren bidetik. Bere urratsen atzetik dabiltzanak, bidearen zailtasunak eta ibiliaren nekeak gaindituz. Zoriontsuak ibiltzean bide berriak sortzen dituztenak, beste batzuek jarraitzeko, atseginez, eta Jainko gure Aitaren lanarekin segitzeko. Zoriontsuak, erne eta gertu euren bidea aldatzen dutenak, sufritzen, negar egiten eta gosea pairatzen dutenengan bizirik dirauen Jainkoaren bila ateratzeko.



Zoriontsuak euren bizitza besteen alde ematen dutenak. Gogor lan egiten dutenak justiziaren alde.

Erresuma eraikitzen dutenak, leku urrunetatik.

Zoriontsuak, anonimoki eta hantusterik gabe, euren bizitza eskaintzen dutenak beste batzuk gehiago eta hobeto bizi daitezen.

Zoriontsuak, euren eguneroko sakrifizioarekin, gizarte berri baterako urratsak ematen dituztenak, "merkatu-jaunak" agintzen duen gizarte honetan.

Zoriontsuak pobreen alde lan egiten duten GUZTIOK. Pobreengandik gertu, pobreen ondoan, pobre bihotzez.

Zoriontsuak anai-arreba zehatza maitatzen dutenak.

Euren egiazko maitasuna, bizitza-ekintzez, konpainia-ekintzez eta benetako entregaz erakusten dutenak.

Zoriontsuak irakasten dutenak, besteek ikasten saiatzen direnak, kolore, azala edo diruagatik desberdintasunik egin gabe.

Zoriontsuak lehenbizi anai-arrebarengan pentsatzen duten GUZTIOK eta besteen eta Erresumaren aldeko lanetan euren zoriontasuna, atsegina eta bizitzaren zentzua topatzen dutenak.



## Misio otoitza

Jesus Jauna, gu salbatzeagatik bizia eman zenuen hori, lagundu zure bake, justizia eta maitasun erreinua eraikitzen jarraitzen.

Kristau guztien bihotzean sorrarazi zure Hitza zabaltzeko gogo

Gure bihotz gazte honetan landu besteen zerbitzuaren alde emateko ideala.

Dena utzi eta munduan zehar

Berri Ona iragartzeko zure agindua betetzen ari direnen gogoari lagundu.

Jesus, Jauna, sor ezazu nigan misiolari bihotza.



## Bizia arriskatzeko otoitza

Jauna, bizia arriskatzen duten horietakoa izan nahi nuke, bizia ematen duten horietakoa.

Zertarako balio du biziak, emateko ez bada?

Jauna, pobre jaio zinen

eta gaizkile gisa hil zara,

atera nazazu nire berekoikeriatik eta erosotasunetik.

Gainerakoak zuhurrak izan daitezke,

zük eroa izan behar zela esan zenuen.

Gainerakoek ordenan sinesten dute.

Zük maitasunean sinesteko esan didazu.

Gainerakoek uste dute gorde egin behar dela.

Eman egin behar dela esan didazu zük.

Gainerakoak instalatu egiten dira.

Ibili egin behar dela esan didazu zük,

eta prest egon behar dugula

alaitasun eta sufrimenduaren aurrean,

porrotaren eta arrakastaren aurrean.

Eta nigan konfiantza ez jartzera, baizik eta Zugan.

Eta, azkenik, nire bizia arriskatu behar dut

zure maitasunaren laguntzaz.



# Saski-naskia



## GOSEA: BAKEARENTZAKO MEHATXURIK HANDIENA

**“Lurak denon beharrak asetzeko lain ematen du,  
baina ez batzuen gutizia asetzeko lain”  
(Mahatma Gandhi)**

**“Eraikitzen dugun kanoi bakoitza, uretaratzen den gerraontzi bakoitza,  
aireratzen dugun espazio-ontzi bakoitza, gosez dauden horiei egindako lapurreta besterik ez da”  
(Eisenhower jenerala)**

XX. mendean, gizateriak etengabe pairatu ditu gerrak, gatazkak, genozidioak, garbiketa etnikoak, eta horiek sekulako oinazeak sortu dituzte: milioika biktima, suntsitutako familiak eta herrialdeak; hainbat iheslari, miseria, gosea, gaixotasunak, azpigarapena eta baliabide eskerga galtzea.

XX. mende hasieran, fede itsua zegoen garapenean. Hala ere, gizakien aurrean bi mundu gerra lehertu ziren, bi sistema totalitario genozida finkatu ziren, gizon-emakumeek sufrimendu itzelak pairatu zituzten eta Elizaren aurka inoizko jazarpenik handiena sortu zen (ahaztu egiten da askotan kristauak izan direla munduan gehien jazarritako taldea termino absolutuetan). Europan ba al dugu horren guztiaren oroimenik? Oroimena ez da bakarrik biktimen mina gogoan izatea, gertatua errepika ez dadin, baizik eta gure pentsamendua eta gure ekintzak bideratzea, halakorik berriz gerta ez dadin. Errealitatearen gaineko begirada bat da biktimengandik, eta horrek konpromiso politikoa dakar justiziaren karra bizirik gordetzeko.

Gaur, XXI. mendean, une honetantxe, Asia, Afrika eta Iberoamerikako txabola auzoetan, munduko biztanleen %40 bizi den txabola horietan, arratoiek familiak behar duen janari urria lapurtzen diete gurasoei. Egunsentian, txiroek eta gosetiek aberatsen hondakin piloak hartzen dituzte, zabor maldetan gora eginez. Haragi zati bat, hildako animalia bat, ogi puskak, barazki erdi ustelduak edo fruta galduak aurkituz gero, euren plastikozko poltsan sartzen dituzte. Hondakin horiek beren familientzat dira. Errebaletan bizi dira, eta horiei esker, ozta-ozta irauten dute bizirik; baina pentsatzekoa denez, halako janari ustelak jatea hilgarria da organismoarentzat. Hirugarren mundu osoan, aberatsen hondakinetatik “elikatzen” dira, hala esan badaiteke, milaka hiri-ingurutako milioika pobretu .



Gaur egun, munduko zerealen %70 animaliak loditzeko erabiltzen da. Gosea genozidioa da, eta gizakien %85i egiten dio kalte. Aldi berean, gainerako %15, batere morala ez den kontsumo-mailan bizi gara. Egun, Europako behi batek egunean 7 dolarreko dirulaguntza jasotzen du batez beste. 1.000 milioi pertsonak, aldiz, egunean euro bakarrarekin bizi behar dute. Egunero 100.000 pertsona hiltzen dira gosez, eta horietatik 50.000 umeak dira. Ikaragarria da, baina munduan gosez dauden umeen %80 elikagai-soberakinak dituzten herrialdeetan bizi dira, eta elikagai gehiena aberatsenek kontsumituko dituzten animaliak loditzeko pentsu gisa erabiltzen da.

## KIDEAK EDO LEHIAKIDEAK? (Intermon Oxfam)

Orain dela sei urte Europar Batasunak (EB) eta Afrika, Karibe eta Pazifikoko (ACP) 76 herrialdek merkataritza negoziazioak hasi zituzten. Prozesuaren data-mugara iristean, 2007ko abenduaren 31n, ACPko herrialdeen erdiak baino gutxiagok lortu zuten Europarekin akordioaren bat. Garapen promesak betetzeko, akordio berriek lagundu behar zieten ACPko herrialdeei ekonomia globaleko bidezko zati bat lortzen. Baina ACP herrialdeetako ekonomia ministroek esaten zuten bezala, "Europar Batasuneko interes merkantillistak ACPko herrialdeen garapen eta integrazio interesei gailendu zaizkie".

Elkarriketa hauen hasierako helburua ona zen: Elkarlanerako Akordio Ekonomikoak (EPA, ingelesezko siglak) lortzea, "munduko ekonomian arian-arian ACPko herrialdeen integrazioa lortzeko, garapen jasangarria bideratzeko eta pobrezia gutxitzen laguntzeko", eta integrazio ekonomiko erregionala lortzen laguntzea. Baina 2007. urtearen bukaeran eta 2008.aren hasieran eremu askotatik sortu dira iritzi kritikokoak. Europak nahikoa behar zuen iritzi kritiko horiekin, konturatzeko bere proposamenak helburuarekiko oso motz geratzeaz gain, alderdi askotan oztupoak sortu baino ez zuela egin. Asmo onarekin egindako akordioak izan daitezke, baina oso urrun daude ondo diseinatuta egotetik.

2007ko azken asteetan, Europar Batzordeak Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) salbuespen klausula baten iraungitzea erabili zuen ACPko herrialdeak presionatzeko eta merkataritza libreko akordioak (TLC) onartzea lortzeko. Sekulako presioa izan zuten arren, herrialdeen erdiak ukatu egin ziren akordio mota hori sinatzera, garapen arloan oso onura gutxi zituztela esanez. Onartu zuten herrialde askok berehalako ondorioei aurre egin behar zirelako sinatu egin zuten: esportazio sektore nagusietan —barazkigintzan, platanuetan eta atunetan—, milaka lanpostu arriskuan zeuden. Europak Boli Kosta, Kenya, Papua Ginea Berria eta Santa Lucia moduko herrialde pobreak mehatxatu zituen esportazioen arantzelak igotzearekin.



Merkataritza garapenaren zerbitzura jartzea, Europak eta ACPko herrialdeek agindu zuten bezala, ez da merkatu "ireki" eta "itxi"en artean aukera sinplista egitea. Merkataritza garapenaren zerbitzura jartzeak zerikusia du ACPko herrialdeek erakundeak, tresna politikokoak eta beharrezkoak diren ballabideak edukitzea bermatzerekin. Horrela merkatuetan sartu ahal izango dira eta era estrategikoan kudeatu ahal izango dute euren txertatzea ekonomia globalean, tokikoari balio erantsia emateko eta etekinak era bidezkoan banatu ahal izateko.

Hala ere, egungo akordioek ACPko herrialdeei garatzeko behar dituzten tresnak kentzen dizkiete, "garapenaren eskaileratik" at utziz, hain zuzen ere, mundu osoko herrialdeek —horien artean europar askok—, "eskailera" hori erabili dutenean beren ekonomia propioak sortzeko. Akordio horiek derrigortu egiten dituzte ACPko nekazariak eta enpresariak lehiatzera ekoizle europarrek lehiatzen diren arau berberen pean, modu serioan heldu gabe ACPkoek lehiakortasunaren aurrean gainditu behar dituzten mugei. ACPko gobernuei eskuak lotzen dizkiete merkataritza neurri anitzak erabiltzeko aukera debekatuz, baita beharrezkoak diren inbertsioak egitea eragotziz. Izan ere, horien bitartez merkatuen irekierak bidea emango luke lanpostuak eta bizimodu duinak sortzeko. Eta eskubide berriak ematen dizkiete inbestitzaile europarrei tokiko enpresen eta interes publikoaren kontura. Integrazio erregionala mehatxatuta dago egin den akordio kopuru handiagatik, eta bateraezina delako indarrean dauden integrazioerako ahaleginekin. Trukean, Europak gutxi ematen du. Bere merkatuak gehiago ireki ditu, baina bestelako oztupo batzuk daude. Akordio horiek kostu handiak ezartzen dituzte, baina era berean garbi utzi du horiek betetzeko ez dela inolako finantzaketa gehigarririk egongo.

## BIOERREGAIK: AUKERA EDO MEHATXUA? (Intermón Oxfam)

Atmosferaren beroketa arazo "moderno" bat da: konplikatu da, mundu osoari eragiten dio eta oso kontu zailakin nahasten da (pobrezia, garapen ekonomikoa eta hazkunde demografikoa, besteak beste). Klima aldaketaren erronka global honi petrolioaren erreserben eskasia gehitzen zaio. Horregatik, planetaren beroketa eragiten duen erregai fosiletan oinarritutako eredu ekonomiko eta energetikoak aldaketa eskatzen du. Bioerregaien aldeko aukerak interesgarriak dirudi: gure eredu energetikoarekin jarraitzea ahalbidetzen digu eta klima aldaketa geldiarazten du.

Bioerregaiak jatorri biologikoa duten erregaiak dira, eta ohiko erregai fosilak ordeztatu ditzakete neurri batean. Erabilienak eta garatuenak bioetanola eta biodieselak dira. Bioerregaiak hasieran zuten erakargarritasunaren arrazoi nagusietako bat zen CO<sub>2</sub>ren igorpenetan neutral gisa ageri zirela. Europar Batzordeak "Klima eta energia berritzaileei buruzko ekintza plana: aldatzen ari den munduarentzako energia" txostenean, neurri multzo bat planteatu zuen klima aldaketaren aurka borrokatzeko 2012. urtetik aurrera, egungo Kyotoko Protokoloa iraungitzen denean. Neurri horien artean, Europar Batzordeak proposatu du 2020. urterako, Europar Batasunak garraioetan %10eko kontsumoa bioerregaiena izatea, bere ekoizpena jasangarria bada. Egun, bioerregaiak EBko garraioaren beharren %1 baino ez dute estaltzen. Egin diren azterketen arabera, EBk lantzeko moduan dituen lurretan 2020. urteko helburuan aurreikusitako kopuruaren erdia baino ekoizteko gaitasunik ez dauka. Beraz, aldea betetzeko, EBk garatzen ari diren herrialdeetatik inportatu beharko ditu lehengaiak bioerregaiak ekoizteko (azukre kanabera eta palmako olio esate baterako), han hobeto lantzen baitira.

Bioerregaiak pobrezia murrizteko aukera handiak eskaintzen dituztela dirudi: geldirik dauden nekazaritza sektore batzuk piztu ditzakete, nekazaritza arloan lanpostuak sortuz eta ekoizle txikiak merkatuak irekiz. Baina arrazoi gehiegirik erakutsi dute bioerregaiak ez direla irtenbide borobila. Errealitatean, bioerregaiak ez dira neutralak CO<sub>2</sub> igorpenei dagokienez. Haien benetako eragina neurtzeko ekoizpenean eman diren urratsak aztertu behar dira. Kontuan izan behar dugu, bestalde, negoziariko aukera bat izanik, luraren erabilera aldatzen ari dela leku askotan, horien ekoizpenerako erabiltzeko. Eta kultiboak aldatzeak, uztondoak erretzeak eta lurrak mugitzeak CO<sub>2</sub>ko kantitate handiak igortzen ditu, izan ere, landareek eta lurrik atmosferak baino hiru aldiz CO<sub>2</sub> gehiago gordetzen baitute. Bioerregaien eskaera handitzen bada, lantzeko lur gehiago beharko da. Sektore honen hedadura hain da handia, dagoeneko beste nekazaritzako gai batzuk edo abeltzaintzakoak ordezkatzeko ari baitira, eta baso tropikalak hondatzen.

Azken hiru urteetan, elikagaien prezioak %83 igo dira. Baliabide eskasak dituzten familiak horien %80 erabiltzen dute elikagailetan. Prezioen igoerak eragin handia izugarria du beren bizimoduetan. Bioerregaiak igoera larri honen arrazoi bakarra ez diren arren, pentsa daiteke elikagaien igoeraren %30erainoko erantzukizuna badutela.

Elikagaien prezioen hazkunde hau ez da aukera bat herrialde pobreetan nekazaritza bizi direnentzako. Izan ere, landa inguruko familia pobreak gehienek sortzen dutena baino gehiago kontsumitzen baitute kopuru garbietan. Elikagaien inportazioaren baitan eta diru-sarrerak eskasak dituzten herrialdeak dira arrisku handiena dutenak.

FAOk 82 herrialde sailkatu ditu Diru-sarrera Eskasak izan eta Elikaduran Gabeziak dituzten Herrialde gisa (LIFDC, ingelesezko sigletan), eta erdiak baino gehiago Afrikan daude. Herrialde hauek munduko biztanleriaren ia bi heren suposatzen dute.

2020an europar garraiorako bioerregaien %10 horren hornitzaile bihurtzeko lasterketan, konpainiak asko ari dira presionatzen, eta babes juridikorik ez duten komunitateak kaltetzen ari dira. Nazio Batuek 60 milioi lagun identifikatu dituzte beren lurretatik desplazatzeko arriskuan, bioerregaiak ekoizteko erabiliko direlakoan. Gehienak indigenak dira.

Herrialde industrializatuen bioerregaiak buruzko politikak ez dute baliabide eraginkorrik eskaintzen klima aldaketari aurre egiteko edo erregaien erreserbak hobetzeko. Baina bultzatzen ari dira aldiz, gobernuek erabaki zailak eta premiazkoak hartu behar ez izatea kontsumoa murrizteko neurrien alde. Era berean, politika horien benetako kostuak sakondu egiten ditu, pobrezia ondoak eta ingurumenaren hondamendia, eta klima aldaketa bizkortu egiten du. Egoera honen aurrean, EBk birplanteatu behar du bioerregaiak buruzko politika: %10eko helmuga bertan behera utzi beharko luke eta teknologia eraginkoragoetan inbertitu beharko lituzke elikagaien bitartez bioerregaiak ekoizteko aurreikusitako diru kopuru ikaragarriak; gizarte eta ingurumen baldintzak sustatu beharko lituzke bioerregaien erabilera benetan CO<sub>2</sub>ren igorpenen kopurua murrizteko; landa inguruetan garatzeko aukerak eskaini beharko lituzke; eta herrialde ekoizleei teknologia egokia garatzeko aukera eman beharko lieke petrolioarekiko mendetasuna murrizten laguntzeko.



San Francisco, 12A-3º  
48003 - BILBAO  
[mision-bi@terra.es](mailto:mision-bi@terra.es)